

zko egunkarigintzak nahitaezko duen baldintza.

Eta uste dut, aipatutakoak badirela nahikoa arrazoi, erakundeetatik ere beharko duen laguntza luza eta eskein diezaioten.

Euskara, ialgi adi europara!

Goiburu horrekin datorkigu EKBko nazioarteko Batzordea argitaratzen hasi den buletin berria, Euskararen Nazioarteko Informazio-Buletina izenpean. Helburua, berriz, honela dago formulaturik lehen zenbakiaren sarreran: "Herri honen bere hizkuntzarekiko atxekimenduaren lekuko izan nahi du buletin honek Europako beste Herrien aurrean. Euskara bizirik defenditzeko, zabaltzeko eta gaurko bizitza sozial eta kultural osoan erabiltzeko erara egokitzeko herritarren eta erakundeen lanen eta ahaleginen berri emango dizu". Karpeta apalaren itxuran eratuta dator.

Lau hizkuntzetan argitaratuko dute: euskaraz, ingelesez, frantzieraz eta gaztelaniaz. Urtean lau zenbaki. Lehenengoan gai hauek bildu dituzte, aurkezpen gisakoaren ondoren: 1. Euskaldunon Egunkaria; 2. Barnetegia: Euskara ikasteko modurik azkarrena; 3. Ikastolen nondik norakoa; 4. Gizarte-elebakartasuna.

Euskara, Europako hizkuntza zaharrena ezezik, apartekoa ere badelako, jakinmina sortu izan du hainbat hizkuntzalariren artean. Horietako ugarik hartu dute beren ikasgai eta irakasgai: Humboldt-ek, Bonaparte printzeak eta gaur arte eta gaur egun beste hainbatek .

Azken urteotan beste eratara ere agertu izan da euskara Europara, bereziki erakusketa eta azoken bidez: Expolangué, etab. Udazken honetako Frankfurt-eko liburuaren azokan ez omen zegoen Euskal liburuaren maharik batere. Tamalgarria da; eta argitaletxeentzat han parte hartzea ezinezkoa edo desegokia gertatzen bada, erakunde publikoek edo Euskaltzaindiak edo, arduratu beharko lukete euskarazko produkzioak bere leku egokia eduki dezan horrelako plazetan.

Europako beste Herrien eta Hizkuntzen artean eskabide adierazgarriak egin izan dira azken urteotan; nabarmenena Bateginik ekintzaldian bildutako 300.000 sinadurak Strasburg-eko parlamentuan entregatzea izan da, Euskararen ofizialtasuna Parlamentuak onar dezan eskatuz, besteren artean. Zoritxarrez, eskabideak ez du erantzunik izan oraindik; eta geroztik bide horretatik bultzatu beharreko ahaleginetan euskaldunok txepelegi gabiltzala esan beharra dago. Katalanek tinkoago eusten diote beren ekinari.

EKBren ahalegin hau informazio-bidetik doa. Ez da hizkuntzalari edo espezialistentzako aldizkaria; Euskararen normalkuntza sozialari buruzko informazio-sailaren barruan sartzen da buletin berria. Europako hizkuntza gutxituen etorkizunaz eta orokorki Europako hizkuntz politikaz eta dinamikaz kezkatuta daudenen eta Euskal Herrian bertan Euskararen eta Euskal Kulturaren alde dihardutenen arteko lotura izan nahi du.

Jakina da Euskararen eta Euskal Kulturaren etorkizuna Herri honetan bertan landuko dela, eta larriena horixe dela; baina ez da ahantzi behar Munduko eta Europako hizkuntzen arteko lehia horretan bilatu beharko duela bere lekua Euskarak ere, inola biziko bada. Horregatik beharrezkoa da Euskararen inguruko nazioarteko ikuspegia ere lantzea. Informazioaren bidez aurrenik.

Sekula baino ozenagoa da Etxepareren kantaren oihartzuna, orain lelo berri batez osotuta: Euskara, ialgi adi Europara!

Hizkuntz labirintoaren erdigunearen bila “Txepetx”en “Un futuro para nuestro pasado”

Sanchez Carrión, José M. “Txepetx”: Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas, Donostia, 479 orr.

Horrela du titulua, 1987an José María Sánchez Carrión “Txepetx”ek argitaratu zuen tesi-liburu mardulak; ordutik hona aski ezaguna eta aipatua euskalgintzan dihardutenen artean; soziolinguistikako horrelako inolako liburu gutxitan izan da seguruenik aztergai hain erabilia artikulutan, mintegitan eta hitzalditan: Euskal Herrian behintzat sekula ez. Zalantzarik ez, arrakasta handia izan duela. Horren adierazgarria da oraingo bigarren argitalpen hau.; eta horren berri ematen du, hain zuzen ere, bigarren argitalpen honen eranskinean Julen Arexolaleibak, autoreari eta obrari buruz idatzitako hamabost bat orrialdeko aurkezpen bio-bibliografikoan.

Liburuak dakarren beste elementu berria Txepetx-ek berak bigarren argitalpenarako egindako lau orrialdeko sarrera da, ia dena euskaraz. Gainerantzean lehen argitalpenarekin eskatuz berdin-berdina da bigarren hau.

Irudi poetikoz jantzirik eta sinbolo iradokiorrez bildurik eman ohi du Txepetxek sarritan bere pentsamendua. Jakin aldizkarian (42-43 zenbakian) bere liburuaren aurkezpena egiteko idatzirik artikuluan, ibai-ertz batetik bestera ardia, otsoa eta aza banan banan eta aza ardiaren arriskutan eta ardia otsoaren arriskutan utzi